

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren irailaren 7ko 235/2021 Foru Agindua, Bastidako (Araba) herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

“Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntuala” izapidetzeko, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura erraztua jarraitu behar da. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak “Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren” inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Bastidako Udalak igorria eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, araututako gutxieneko edukari jarraitzen diona, bai eta planaren zirriborroa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, dokumentazioa hori jaso ondoren, hasiera eman zion, 2021eko maiatzaren 4an, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari. Kontsulta epea hilabetekoa izan zen.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2021eko irailaren 2an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (21/68 espedientea).

1. Birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatutako eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten denez, “Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren” xedea Bastidako 15. poligonoko 76. katastro lurzatiaren espazioa antolatzean datza, zehazki, B azpilurzatia (726,78 m²) eta A azpilurzatiaren E2 azpiunitatea (298,39 m²), biak udalarenak. E2 azpiunitatea eraitsi egin da; beraz, hutsik geratzen den udal orubeak 1.025,17 m²-ko azalera du, guztira. Eremu horrek 5 metroko desnibela du hegoalderantz, Bakearen Plazaren mailarekiko, eta, gaur egun, bide publiko ireki berri baten mugakidea da, ipar-hego ardatzarekin, zeina jasota baitzegoen herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan berezian. Oinezkoentzako bide horrek A-124 foru zeharbideraino luzatzen du kalezuloa.

Kale berrirako egungo lerrokadurei eta atzeko lerrokadura berriari eutsiko litzaieke. Hauxe proposatzen da: BS+1+E eraikigarritasuna eta gehieneko altuera 5,60 m-koa eta 9,50 m-koa kale ireki berrira.

Azken batean, Bastidako herrigune historikoaren hiri sarea babestu, kontserbatu eta hobetu nahi da, eta udal zerbitzu publikoen eskaintza osatu; izan ere, udal ekipamendu publikoaren erabilera proposatu nahi da, ondoren honako ekipamendu hauek instalatzeko:

– Turismo informazioko bulegoa, Itourbask sarean sartu ahal izateko adinako neurriekin eta beharrezko instalazio telematikoekin.

– Erabilera anitzeko espazioa, jarduera soziokulturalak egin ahal izateko.

– Enpresa hazitegi bat eta/edo “coworking” sortzeko gunea.

1.2. Ebaluatutako eremu geografikoa:

“Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren” proposamenaren eremua Bastidako alde zaharreko antolamendu xehatuko tresnaren 7. lurzati M etxadiaren eraikuntza unitateari dagokio, Bastidako 15. poligonoko 76. katastro lurzatiarekin bat datorrena.



Hiri eremu finkatua da, eta herriaren erdialden dago kokatuta; zehazki, Bastidako udaletxearen eraikinaren ondoko hego-ekialdeko lurzatian. Hurrengo irudian, 76 lurzatiaren B azpilurzatia (726,78 m²-ko azalera oinplanoan) urdinxka nabarmentzen da; A azpilurzatia (379 m²-ko azalera oinplanoan), berriz, B azpilurzatiaren iparraldean kokatuta dauden bi eraikinek osatzen dute (E1 eta E2), eta laranja kolorez nabarmentzen dira. Eraikinetako bat, azalera handienekoa (E2) eta hegoalderago dagoena, eraitsi egin da; beraz, hutsik geratzen den udal orubeak 1.025,17 m²-ko azalera du, guztira.

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denaren arabera, guztira bi aukera hartu dira kontuan:

– “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): Egungo hirigintza egoerari eustea da; ondorioz, 15. poligonoko 76. lurzatiak antolamendutik kanpo egoten jarraituko luke.

– “1” aukera (ez da hautatu): Bizitegi erabilera xehatuak eta lotetan zatitzea baimentzea da. Horrek espazio libreak aldatzea ekarriko luke, eta hori bideragarria eta bateragarria izango litzateke antolamendu xehatuaren araudiaren ikuspegitik, baita bizitegi etxebizitzak garatzea ere B azpilurzatian eta A azpilurzatiko E2 eraikin eraitsiaren orube hutsean.

– “2” aukera (hautatua): Bastidako 15. poligonoko 76. katastro lurzatiaren espazioa antolatzean datza, zehazki, B azpilurzatia deritzona (726,78 m²) eta A azpilurzatiaren E2 azpiunitatea (298,39 m²), biak udalarenak, eremuan baimendutako erabilerak ekipamendu publikokoak izan daitezten.

2. aukera hautatu da, erabileren antolamendu xehatuaren mailan onurarik handienak dituelako; izan ere, gaur egun antolamenduz kanpo dagoen orube hutsa udal ekipamendu publiko generiko gisa aurreikusten baita, Bastidako herrigune historikoko monumentu multzoaren paisaia kalitatearen balioen babesarekin batera. Era berean, aukera hori hautatu da, eremuko sektore eta lurralde planen gidalerro eta helburuekin bat egiten duelako eta babes horrek ez diolako kalte egiten aintzat hartutako inguruneko ezin elementuri modu ez bateragarrian.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2021eko maiatzaren 4an Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteekin zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN-Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA-Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Aranzadi Zientzia Elkartea	
Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Bastidako Udala	
Zambranako Administrazio Batzarra	
Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 21/68 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean jasotzen du proposatutako aldaketan ez dagoela eragin arkeologikorik bere horretan. Hala ere, adierazten da Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen arabera, “arkeologia zona batean edo ustezko zona arkeologiko batean egin beharreko obra oro Arabako Foru Aldundiak baimendu beharko du aldez aurretik, eta hark zehaztuko du arkeologia jardueraren bat egin behar den edo ez, eta zein motatakoa”

– Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txostena egin du, non hau ondorioztatzen baita, proposamenaren laburpena egin ondoren: birgaitze integratuko plan berezia Bastidako herriguneari dagokio; beraz, ez dio eragiten nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari, ez eta landa lurzoruari ere. Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan ere ez du eraginik”

- URA-Uraren Euskal Agentziak txostena eman zuen, eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Ondoren, bigarren txosten bat egin zuen, eta, bertan, hornikuntzari eta saneamenduari buruzko gogoeta batzuk egin ondoren, hau ondorioztatu zen “Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualari” dagokionez: “Uraren Euskal Agentzia honek ez du nabarmendu beharreko alderdi esanguratsurik aurkitu izapidetzen ari den

ingurumen ebaluazio estrategikoaren esparruan." Hala ere, adierazten da hirigintza izapideen esparruan beharrezkoa izan daitekeela Uraren Euskal Agentziari beste txosten bat eskatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7 k) eta l) artikuluan oinarrituta. Izapide horren barruan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak nahitaezko txostena egingo du, eta eskaera berriei erantzuteko baliabide nahikorik dagoen edo ez adieraziko du.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren txostena helarazi du. Bertan, ebaluazioaren xede den planak kultura ondarean izan ditzakeen eraginak erreparasatu ondoren, aldeko txostena egin da, honako ohar honekin: "plan bereziaren zehaztapen orokorrek berez esku hartzearen emaitza integratua bermatzen ez dutenez, obrak gauzatzeko proiektuak ingurumen ebaluazio erraztua behar du"

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txosten bat egin du, eta bertan adierazten da udaletxearen balioei eusten zaiela ziurtatzeko (15. poligonoko 76. lurzatiaren ondoan, birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren eremuan), aldaketaren xede den lurzatiaren hirigintza parametroek (lerrokadurak, sestrak eta altuerak) hauei buruzko neurriak hartu beharko lituzketela, integrazioa hebetzeko:

- Birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketa puntualak behar diren parametroak jaso beharko lituzke, eraikuntza berriaren goiko solairuek udaletxearen ipar-ekialdeko ertzarekiko gutxienerako atzerapena errespeta dezaten.

- Bake plazaren eta Bake Plazaren kalezuloaren punturik baxuenaren arteko kota aldeak aukera eman dezake eraikuntza berriko solairuen altuera egokitzeko, eta horrek erraztuko luke bolumen berriak integratzea hego-ekialdean kokatuta dagoen hiri bilbean.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen eragin nagusiak

"Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntuala" dela eta, behin betiko onartuz gero, uste da ez lukeela eragin nabarmenik izango ingurumeneari, hiri lurzoru finkatuko eremu bat delako, ez dagoelako ingurumen elementu nabarmenik eta proposatutako planaren ezaugarriengatik. Gaur egun, eraginpeko eremuan ez dago landarerik ere, baina hori ez da oztopo ingurumeneari integratzeko neurri jakin batzuk ezarri behar ez izateko.

Erreferentzia planak ondorio positiboak izango lituzke, hiri sare trinkoa betetzea sustatuko bailuke, herrigune historikoaren estetika kontserbatu eta hobetuko bailuke, eta udal zerbitzu publikoen eskaintza osatuko bailuke. Hala ere, eta kultura ondarearen gaineko inpaktuak gerta litezkeenez, zehazki, ondare arkeologikoaren eta ondare historiko-arkitektonikoaren gainekoak, komenigarritzat jotzen da foru organo eskudunek ingurumen ebaluazio estrategiko honen prozeduraren esparruan zehaztu eta/edo gomendatu dituzten jarraibideak errespetatzea.

Bestalde, hirigintza izapideen esparruan, Uraren Euskal Agentziari beste txosten bat eskatu ahal izango zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7 k) eta l) artikuluan oinarrituta. Izapide horren barruan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak nahitaezko txostena egingo du, eta eskaera berriei erantzuteko baliabide nahikorik dagoen edo ez adieraziko du.

Azkenik, aipatu behar da aldaketa hau ezartzeak izan ditzakeen ondorioak urbanizazio eta eraikuntza obrak gauzatzeak eragindakoak izango direla. Afekzioak aldi baterakoak izango dira, eta obrak amaitu bezain laster bukatuko dira. Beharrezkoa izango da horri buruzko ingurumen integrazioko neurriak ezartzea.

4. Ingurumen baldintzak

Ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko neurriez (8. atala) eta planaren ingurumen jarraipena egiteko aurreikusitako neurriez (9. atala) gain, hirigintza dokumentuak honako babes eta zuzenketa neurri hauek hartu beharko ditu kontuan, berariazko araudian sartzeko:

– Arkeologia zona batean (Bastidako herrigune historikoan, ebaluatzen den erreferenziazko planaren kasuan) edo ustezko zona arkeologiko batean egin beharreko obra oro Arabako Foru Aldundiko organo eskudunak baimendu beharko du alde zuzenetik, eta hark zehaztuko du arkeologia jardueraren bat egin behar den edo ez, eta zein motatakoa.

– Aldaketaren xede den lurzatiaren hirigintza parametroek (lerrokadurak, sestrak eta altuerak) haien integrazioa hobetzeko neurriak jaso beharko lituzkete honako alderdi hauetan:

- Birgaitze integratuko plan bereziaren aldaketa puntualak behar diren parametroak jaso beharko lituzke, eraikuntza berriaren goiko solairuek udaletxearen ipar-ekialdeko ertzarekiko gutxieneko atzerapena errespeta dezaten.

- Bake plazaren eta Bake Plazaren kalezuloaren punturik baxuenaren arteko kota aldeak aukera eman dezake eraikuntza berriko solairuen altuera egokitzeko, eta horrek erraztuko luke bolumen berriak integratzea hego-ekialdean kokatuta dagoen hiri bilbean.

– Planaren hirigintza izapideen esparruan, txostena eskatu beharko zaio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari, hark nahitaezko txostena egin dezan, eta eskaera berriei erantzuteko baliabide nahikorik dagoen edo ez adieraz dezan.

– Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabili beharko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea: baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoizko hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegira edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Eraikuntza eta eraipen hondakinak kudeatzeko, halakorik sortuz gero, eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera bete behar da.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. “Bastidako herrigune historikoaren birgaitze integratuko plan bereziaren 7. aldaketa puntualaren” ingurumen txosten estrategikoa ematea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA